


Irakurri arretaz inken, Maien eta azteken informazio testuak. Ondoren, galderak erantzun.

AZTEKAK

Nekazariak ziren eta lurra ureztatzeko sistema aurreratuak asmatu zuten. Artisauek ziren eta arte ederrak landu zituzten: eskultura, pintura...urrea lantzen ere abilezia handia zuten. Eraikin handiak (piramide mailakatuak) eraiki zituzten beren jainkoak gurtzeko. Beste herri batzuen kultura-ekarpenak bereganatu zituzten. Hieroglifikoak erabiltzen zituzten. Borrokalari sutuak ziren.



MAIAK




Nekazari bikainak ziren, artoa lantzen zuten. Artisauek besteak beste, eskulturak, baxuerliebeak eta urrezko eta zilarrezko apaingarriak egiten zituzten. Eguzkia eta ilargia gurtzeko piramide mailakatuak egin zituzten. Aritmetika, idazkera hieroglifikoa eta 365 eguneko eguzki-egutegia asmatu zituzten. Matematikari azkarrak eta astronomian oso jantziak ziren; eta oso uzta onak jasotzen zituzten.

Soldaduak zituzten, eta hainbat borroka eta gerratan parte hartu zuten.

INKAK

Nekazariak ziren. Artisau onak ziren. Urrezko artelanak egiten zituzten, urreak eguzkiaren distira bera zutelako. Machu Pichu hiria egin zuten. Hiri hori eraikitzeko, harri handi-handiak erabili zituzten (10-15 tonakoak). Hor ere badira piramide mailakatuak. Ikek ez zuten idazketarik landu eta marrazkien bidez transmititzen zute jakinduria. Atahualpak, inken azken erregeak, soldadu asko zituen, eta armada handia osatu zuen.



Erantzun iezaiozu galdera hauei:

1. Hiru zibilizazio horietatik, zeintzuk ziren nekazariak?

Aztekak

Maiak

Inkak

2. Hiru zibilizazio horietatik, zeintzuk ziren artisauak? Zer landu zuten bakoitzak?

- Aztekak:
- Maiak:
- Inkak:

3. Hiru zibilizazio horietatik, zeinek erabili zuen idazkera hieroglifikoa?

Aztekak

Maiak

Inkak

4. Zeinek asmatu zuen idazkera hieroglifikoa? Zer gehiago asmatu zuten ?

5. Zein zibilizazioek transmititzen zuten jakinduria marrazkien bidez? Markatu.

Aztekak

Maiak

Inkak

6. Lotu zibilizazio bakoitza dagokion irudiarekin.

AZTEKAK ☒

INKAK ☐

MAIAK ☐



HIEROGLIFIKOA



MACHU PICHU



PIRAMIDEA